

LUR BERTINTZALEA

Orain dela urte asko eta asko, laurogeita hamar urteko gizon jakintsu bat bizi zen Txinan. Zahar Jakintsua deitzen zioten. Hara eta hona ibiltzen zen, antzinako Txinan zeuden jakinduria modu guztiak idatziz jaso nahian.

Behin, bi mendi izugarriren artean kokatuta zegoen herrixka batera iritsi zen. Egarri zenez, handik pasatu zen emakume gazte bati ura eskatu zion. Hark ura eman, eta zenbat urte zituen galdetu zion gizonari.

—Laurogeita hamar —erantzun zion Zahar Jakintsuak.

—Gure aitonak bezala! Hark ere laurogeita hamar ditu...

—Eta nola du izena zure aitonak?

—Kui fu, baina jendeak Zahar Inozoa deitzen dio.

—Orduan, ez daukagu halako antzik... —gaineratu zuen Zahar Jakintsuak.

Baina, Zahar Jakintsuak jakin egin nahi zuen zergatik deitzen zioten gizon hari Zahar Inozoa. Neskari jarraituz, haren etxera joan zen. Baina ez zegoen etxean, kanpoan baizik, goldaketan.

—Egun on —esan zuen Zahar Inozoak, kanpotarra hurbiltzen ikustean.

—Egun on —erantzun zion Zahar Jakintsuak. Eta adi-adi geratu zen hari begira. Lurra zuzen-zuzen ildaskatzen zuen, idia behar bezala gidatzen zuen, eta, bitartean, kanpotarrak adeitasunez agurtu ere egiten zituen.

Laneguna amaitzean, Zahar Inozoak bere etxean lo egitera gonbidatu zuen Zahar Jakintsuak. Etxea txukun-txukuna zuen, eta seme-alabaz eta ilobaz beteta zeukan. Gogoz ziharduten guztiek lanean.

Denak hain zintzo lanean ikustean, are gehiago harritu zen etxeko jabearen goitizenaz. Haren emazteari zuzendu zitzaion, orduan:

—Zergatik deitzen diote Zahar Inozoa zure senarrari? Lardats samarra delako, agian?

—Ez horixe! Nire senarra oso gizon ona da, abilenetan abilena, ehizatzeke nahiz goldaketan aritzeko, zuloak egiteko, segan jarduteko edota egurra edo harria lantzeko. Zer uste zenuen, bada?



—Orduan, buruarin edo txoriburu samarra al da?

—Ez horixe! Nire senarra azkarra eta zentzuzkoa da, baikorra eta bizkorra, atsegina eta leiala.

—Eta, zein da bere lana?

—Galde iezaiozu berari... —erantzun zion emakumeak, hainbeste galderaz kokoteraino.

Hala, Zahar Jakintsuak zuzenean galdetu zion Zahar Inozoari zergatik deitzen zioten hala.

—Gelditu gabe lan eta lan aritzen naizelako deitzen didate Zahar Inozoa.

—Eta ez al zaizu iruditzen dagoeneko nahikoa lan egin duzula bizitza honetan? Lurra landuko dizuten seme-alaba eta iloba asko dituzu. —esan zion Zahar Jakintsuak.

Zahar Inozoak, orduan, Zahar Jakintsua besotik heldu eta etxe atarira eraman zuen. Handik, inguruko bi mendi altu haien gailurrak ikus zitezkeen. Hatzarekin haiek seinalatuz, hauxe azaldu zion Zahar Jakintsuari:

—Zorionekoa naiz. Seme-alabak eta ilobak dauzkat. Jatekorik ez zaie falta. Eta ni arduratzen naiz guztiez. Zenbat eta seme-alaba eta iloba gehiago, orduan eta aho gehiago mantentzeko. Eta, horretarako, nahikoa lur ez daukagu. Horregatik, goizero, bi mendi horien gailurretarantz abiatzen gara guztiok, eta lurrez eta harriz betetako otarre bana eramaten dugu bertatik. Lurra berdintzea lortzen dugunean, gure soroak handiagoak izango dira, eta denok izango dugu zer jan.



—Baina, zer diozu? Laurogeita hamar urte dituzu eta! Ez duzu inoiz lur hori guztia berdindu ahal izango! Orain, badakit zergatik zaituzten inozotzat.

—Eta zerorri Jakintsua deitzen al dizute? Egia da oso zaharra naizela. Zu bezainbeste. Baina seme-alabak, ilobak eta bilobak ditut, eta horiek ere seme-alabak, ilobak eta bilobak izango dituzte, eta, ni hildakoan ere, nire irakasbideak jarraitzen badituzte, otarrez otarre lurra berdindu egingo dute, eta denek izango dute zer jan. Gaztea nintzela ekin nion lan honi. Lehen egunean otarre bakarra atera nuen. Orain, nire ondorengoel esker, egunean hamar otarre ateratzen ditugu. Eta, horrela jarraituz gero, egunen batean ehun atera ahal izango ditugul izan ere, nik badut abantaila bat: nire ondorengoak egunez egun ugaltzen dira. Mendia, berriz, ez da hazten. Denok batera lan egiten badugu, egunen batean, lur hau laua izango da, eta landatu egin ahal izango dugu.

Eta guztia zekien Zahar Jakintsua aho bete hortz geratu zen, zuzen baitzegoen Zahar Inozoa.


Kondairak dioenez, gau batean, mendietako jainkoek, Zahar Jakintsuaren asmo onak ikusirik, beren gordelekutik irten, mendiak hartu eta itsasora bota zituzten. Eta, horrela, Zahar Inozoak ehun urte bete baino lehen ikusi zuen bere ametsa errealtate bihurtzen.

*Proverbios de la Antigua China
Quincemundos
Miraguano ediciones (egokitua)*

1. Gogoratu kondaia, eta adierazi: esaldi hauetatik , zen da zuzena (Z) eta zein okerra (O).

- a) Zahar jakintsuak ez zuen erakutsi hain azkarra zenik, jakintsutzat zeukaten arren.
- b) Zahar jakintsuak argi eta garbi erakutsi zuen bere jakinduria.
- c) Zahar inozoak benetan inozo samarra zela erakutsi zuen.
- d) Zahar Inozoak jendeak uste baino azkarragoa zela erakutsi zuen.

2. Zahar jakintsuak zertan ikusi zuen zahar inozoa, harengana joan zenean? Markatu "x" batekin.



3. Erantzun galderei.

- a) Zein da pazientzia gehien duen gizona kontakizun honetan? Zergatik?
- b) Nork dauka pazientzia gehien zure etxean? Zergatik?

4. Kondaira honetan zein pertsonaia gustatu zaizu gehien? Zergatik?



Zahar jakintsua



Zahar inozoa